



ARGAZKI LEHIAKETA SOZIALA

JOSE ALONSO LABRAREN Oroimenez 2024

Donostiako **CLUB VASCO DE CAMPING ELKARTEAK** antolatuta, aukeratutako argazki digitalen proiektzio emanaldia izango da, une egokian iragarriko diren egun eta ordutegian.

Parte-hartze oinarriak hauek dira:

1. Elkarteko bazkideak diren guztiek parte hartu ahal izango dute.
2. Gaia **MENDIA** izango da, bere alderdi eta ikuspegi guztietan (mendizaletasuna, txangozaletasuna, alpinismoa, eskia, espeleologia, eskalada, natura, paisaia, humanitateak, ohiturak, ingurumena, salaketak ... eta abar).
3. Partehartzaile bakoitzak **guztira sei argazki digital** igorri ahal izango ditu. Beste aurreko urte batean lehiaketa honetan sarituak izan direnak ez dira onartuko.
4. Argazkiak entregatzeko azken eguna **Urriak 31a** izango da, eta epaimahaiaren ebazpena, emanaldiaren egunean elkartearen helbidean, Prim kalea 35- Donostia jakingo da.
5. Hiru sari izango dira, oroigarriak eta mendi material formatuko opariak.
6. Partehartzaile bakoitzak sari bakarra eskura dezake.
7. Epaimahaia, mendizale, mendi eta kirol argazkilari aditu, elkarteko kide batzuek eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartea osatuko dute.
8. Lanak **CLUB VASCO DE CAMPING ELKARTERA** bidaliko dira posta elektronikoaren bitartez, cvc@vascodecamping.com
9. Elkartea, aukeratutako argazkiak ezagutzera emateko baimendua egongo da, Errimaia aldizkaria, webgunean eta facebook, urteko egutegian eta elkartearen egoitzan burutuko den erakusketa baten bitartez.
10. Kalitate goreneko JPG formatuan eta 25 Mb-ko tamainako mugarekin entregatu beharko dira argazkiak. Argazki-bildumarekin batera egilearen izena, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, izenburua eta argazkiak non eskuratu diren testu-fitxategi batean (PDF, DOC edo TXT formatua). Irudiek ez dute marko edo marjina erantsirik izan behar.
11. Oinarri hauetatik kanpo gelditzen den jardunbidea, elkarteak bere irizpide egokiak erabiliz ebatziko du.